




Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025eko maiatzaren 6a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Walt Whitman

(West Hills, New York, 1819 - Camden, New Jersey, 1892)

Walter "Walt" Whitman maila apaleko familia batean sortu zen, aita zurgina zuen eta hamaika urte zituela eskola utzi eta lanean hasi zen inprenta batean. Tipografo lanetan ihardun ondoren, 1841etik 1848ra egunkari eta aldizkarietan idatzi zuen eta haietako zenbaiten zuzendari izan zen. Gero aitaren lanbideari lotu zitzaion. Gerra zibilean borondatezko erizain gisa lan egin zuen (1862-1865). ***Leaves of Grass (Belar hostoak)*** Whitman-en obra poetiko bakarra da; 1855ean lehen aldiz argitaratu zenetik behin eta berriro zuzendu eta emendatu zuen ondoko beste bederatzi argitalpenetan. Prosazko zenbait obra idatzi zituen, hala nola ***Democratic Vistas*** (1871), demokraziaren izaerari buruzkoa eta ***Specimen Days and Collect*** (1883), haurtzaroko eta gerra garaiko oroitzapenak biltzen dituenak. 1873an paralisiak jo zuen lehen aldiz eta zerbait osatu zelarik bidaiak egin zituen Ipar Ameriketara zehar; 1888an, ordea, bigarrenaz gaixotu zen. Whitman Estatu Batuetako poetarik handienetakotzat jotzen da.

Walt Whitman (poesia kaiera)



Ameriketako Estatu Batuetako XIX. mendeko poeta gorena, Emily Dickinsonekin batera: horra hor, askorentzat, Walt Whitman. Transzendentalismoaren ordezkari petotzat jo ohi dute: izadiaren eta gizakiaren batasuna, eguneroko gauza soilen jainkozkotasuna, naturaren joria eta orobiltasuna, norbanakoen eta munduaren ontasuna... eta, tasun horiek guztiak blaituz, zelebrazioa: haragiaren eta espirituaren uztarduraren ospakizuna, aberriarena eta demokraziarena, giza gogoarena, adiskidetasunarena, maitasunarena (gizonen artekoa sarri), mikatzean ere irautearena, giza bizileku eta bizigai den ingurunearena. Funtsean, doinu zabal bat biziari. Josu Goikoetxeak egin du itzulpena.

Walt Whitman idazlanak euskaraz

Belar hostoak (1855)

Walt Whitman (Poesia kaiera) **P WHI**

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Walt_Whitman

Susa literatura

<https://susa-literatura.eus/liburuak/mkai41>

Euskarari ekarriak

<https://ekarriak.armiarma.eus/?i=497>